



SAN BLAS GARBIGUNE ZERBITZUAREN ARAUDIA

SARRERA

Egun biltzen eta behar bezala tratatzen ez diren hondakin asko bide bazterretan, orubetan edo zabortegitan uzten dira. Horrelakoetan, hondakinak ez dira aprobetxatzen eta, gainera, kalteak eragiten dituzte herrien eta hirien estetikan eta ingurumenean.

Garbiguneak berrerabiltzeko edo birziklatzeko etxe-hondakinak eta antzekoak gaika biltzen dituzten zentroak dira. Hortaz, erabiltzailearen eskura dauden instalazioak ditugu, normalean zabor-poltsan sartzen ez dituen eta ondoren aprobetxa daitezkeen eta/edo lehenbailehen alde batera utzi nahi dituen materialak uzteko aproposak direnak. Labur esanda, hondakinak gaika biltzeko sistema bat da.

GARBIGUNE ZERBITZUAREN ARAUDIA

1. artikulua. Xedea

Instalazio-mota hauen arrakasta, batetik, kokapenaren eta, bestetik, antolamenduaren eta ustiapenaren baitan dago. Horren harira, beharrezkoa da zehaztea erabiltzaile- eta hondakin-mota, ordutegiak, eta materialen banaketa eta kudeaketa egokia. Eta horixe da, hain zuzen ere, Tolosako San Blas auzoan dagoen Tolosaldeko Mankomunitatearen Garbigune Zerbitzuaren Araudiaren xedea.

2. artikulua. Harrera-ordutegia eta -egutegia

Hondakinen sarrera erregulatuko dituzten ordutegi eta egutegi finkoak ezarriko dira.

Hauxe izango da Garbigunearen ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30etara
- Larunbatak: 9:00etatik 13:30etara
- Igandeak eta jaiegunak: itxita
- Abuztua: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30etara

3. artikulua. Garbigunearen erabiltzaileak

Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan hondakinak sortzen dituzten herritarrek soilik erabili ahal izango dute Garbigunea.



Erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da araudi hau ez betetzeagatik ezarritako zigorrik bete gabe ez izatea

4. artikulua. Hondakin onargarriak eta entregatzeko baldintzak

Etxe-hondakinak, etxeetan obra txikiak egiten dituzten eta/edo tailer txikiak dituzten gremioek (igeltseroek, iturginek, zurginek) sortutakoak, eta orobat saltokiek, ostalaritzako establezimenduek eta bulegoek sortutakoak onartuko dira.

Ez da onartuko industriek eta obra handiek sortutako hondakinak. Dena den, industria-jarduerak sortutako hondakinak onartu ahal izango dira, baldin eta produkzio-prozesuaren edo jarduera industrialaren ondorio ez badira, hiri-hondakinaren pareko badira eta Araudi honetan finkatutako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Hauek dira Garbigunean onartuko diren hondakinak:

- Etxeetan egindako obra txikien zaborrak eta obra-hondakinak
- Plastiko birziklagarriak (polietilenoazko bidoiak, film plastikoa,...)
- Plastiko birziklaezinak (pertsianak, jostailuak,...)
- Etxeko tresnak (koltxoiak, sofak, somierrak,...)
- Papera eta kartoia
- Metalak eta txatarra
- Inausketa eta lorezaintza hondarrak
- Zurak (paletak, altzariak, kutxak, oholak, etab.)
- Tailerretatik ez datozen autoen pneumatikoak
- Arropa erabilia
- Beirazko ontziak
- Plastikozko, metalezko eta brik-motako ontziak
- Tresna elektrikoak eta elektronikoak (ordenagailuak, telebistak, irratiak, telefonoak,...)
- Linea zuriko etxetresna elektrikoak (garbigailuak, sukaldeko etxetresna elektrikoak,...)
- Hondakin bereziak:
 - Sukaldeko olio erabilia (ontzi itxian)
 - Motor-olio erabilia (ontzi itxian) Ez da onartuko konponketa-tailerretako eta antzeko tokitako oliorik 25 litro baino ez dira onartuko bezero eta hilabete bakoitzeko
 - Tailerretatik ez datozen autoen bateriak
 - Fluoreszenteak eta lanparak
 - Pilak
 - Etxe-hondakin arriskutsuak: pinturak, bernizak, kolak, disolbatzaileak, fitosanitarioak, aerosolak eta antzekoak ontzi itxitan
 - Inprimagailuen toner-kartutxoak
 - CDak, disketeak, bideo-zintak eta antzekoak



5. artikulua. Kopuruak eta mugak.

2 m³ eta 750 kilo baino ez dira onartuko aste eta bezero bakoitzeko.

3500 kilotik beherako gehienezko pisu baimendua duten ibilgailuek soilik deskargatu ahal izango dute.

6. artikulua. Sarrera kontrolatzea. Zaintza.

Garbigunea ustiatzen duten arduradunek zainduko dute sarrera 2. artikuluan finkatutako ordutegian.

Hauek izango dira zaindariaren betebeharrak:

- Erabiltzaileari hondakinak non utzi behar dituen azaldu.
- Garbigunearen instalazio osoa txukun eta egoera onean mantendu.
- Onartezinak diren materialak uztea debekatu.
- Erabiltzaileen eta materialen harrera erregistratu.
- Ibilgailuaren matrikula eta utzitako hondakinaren kopurua eta topologia idatzi.
- Materialen (edukiontzi beteak) irteera eta helmugak erregistratu.
- Baimendu gabeko edozeinek Garbigunetik hondakinak eramatea saihestu, izan ere, hondakinak kudeatzeko baimena duten enpresek edo pertsonak soilik eraman ahal izango dituzte.

7. artikulua. Erabiltzailearen erantzukizuna eta betebeharrak.

1. Esleitutako edukiontzi bakoitzean utziko ditu erabiltzaileak materialak, material-mota kontuan hartuta eta modu ordenatuan.
2. Uneoro jarraituko ditu instalazioaren zaindariaren argibideak.
3. Hondakinak deskargatzean zer edo zer zikinduz gero, garbitu beharko du.
4. Behar bezala eta abiadura egokian gidatuko du, sarbidea uneoro libre utziko du eta 3500 kilotik beherako gehienezko pisu baimendua duten ibilgailuak erabiliko ditu.
5. 2 m³ edo 750 kilo baino ez ditu utziko astero.
6. Betebeharren bat betetzen ez badu, indarrean dagoen Legezko Araudiaren menpe geratuko da.

8. artikulua. Tasa.

Zerbitzua doakoa izango da.

9. artikulua. Hondakinak kudeatzea.



Edukiontzia bete ondoren, aurretik zehaztutako lekura eramango da, material-mota eta -kalitatea kontuan hartuta. Hau da, berrerabili daitezkeen materialak berrerabili, birziklatu edo konpostatuko dira eta gainerako materialak kontrolpeko zabortegetan utziko dira.

10. artikulua. Arau-hausteak.

Araudi hau erregulatzen duten gaiei dagokienez arau-hauste administratiboak dira Araudiaren edukia osatzen duten arauak urratzen dituzten ekintzak eta ez-egiteak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- Onartezinak diren, alegia, Araudi honen 4. artikuluan zehazten ez diren hondakinak uztea.
- Garbigunearen ondoan, baina kanpoaldean, hondakinak uztea, irekita nahiz itxita dagoenean.
- Garbigunetik hondakinak eramatea zaindariaren baimenik gabe.

Hauek izango arau-hauste larriak:

- Hondakin motari, kopuruari eta jatorriari buruzko informazioa eman nahi ez izatea.
- Behar bezala utzi ez diren hondakinak kendu eta garbitu nahi ez izatea.
- Garbiguneko zaindariaren aginduak eta argibideak ez betetzea.
- Instalakuntzetan kalteak nahita eragitea.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- Hondakinak dagozkien edukiontzietan edo tokietan ez uztea.
- Araudi honetan ezarritakoa urratzen duen edozein arau-hauste edo ez-egite.

11. artikulua. Zigorrak.

Zigorrak jartzeko eskumena Tolosaldeko Mankomunitatearena izango da.

Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteetako bakoitza isun batez zigor daiteke; isunaren kopurua ondorengo eskalaren arabera finkatuko da, arau-hausleak gauzak bere onera ekartzeko eta, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek balioetsi ondoren, bere arau-hausteak eragindako kalteak ordaintzeko duen obligazioa gorabehera.

Arau-hausleak ez baditu gauzak birjartzen edo lehengorutzen, betearazte subsidiarioa egingo da arau-hauslearen kontura eta kostura.

- Arau-hauste oso larriak: Isuna, 450,01 eta 900,00 € artekoa.
- Arau-hauste larriak: Isuna, 90,01 eta 450,00 € artekoa.



- Arau-hauste arinak: Ohartarazpena eta/edo isuna, 90,00 €-rainokoa.

Zigorrek jartzerakoan kontuan izango da asmo txarrik edo errepikapenik izan den, eta eragindako kalteen izaera.

12. artikulua. Prozedura.

Zigortzeko ahalmenaren prozedurak dagokion espedienteari hasiera eman eta gero hori bideratzea eskatuko du, aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Erantzukizuna

Araudi honetan aurreikusitako zigorrek ez dute arau-hausleak izan dezakeen erantzukizun zibiletik edo penaletik salbuesten.

Presidentea,